

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BARRUNDIAKO UDALA

2020ko Estatuko hitzarmenaren kudeaketaren agindua

Udalbatzak, 2020ko otsailaren 6an egindako batzarrean, beste batzuen artean, honako erabaki hau hartu zuen:

Ikusi da: Espainiako Gobernuko Presidentetza, Gorteekiko Harreman eta Berdintasun Ministerioko Berdintasunerako Estatu Idazkaritzak, 2019ko urriaren 31n, 850,64 euro transferitu zizkion Barrundiako Udalari, genero-indarkeriari buruzko estatu-ituna garatzeko.

Lautadako Kuadrillako Berdintasun Zerbitzuak, efikazia eta efizientzia handitze aldera, erakunde horren barruan programa bateratu bat garatea proposatzen du, honako hauek gara ditzan:

- Berdintasunerako eskola-patioak diseinatzea. 1. fasea: sentsibilizazioa, analisia eta proposamenak.

Oinarri juridikoa: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore publikoaren araubide juridikoaren 8. artikulua xedatutakoaren arabera, eskumenari ezin zaio uko egin, eta eskumena berena duten administrazio-organismoek baliatuko dute, baldin eta, aurreneko lege horretan zein beste batzuetan ezarritako moduan, delegatzen ez bada edo gorakoak eskumena bereganatzen ez badu.

Oinarri juridikoa: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore publikoaren araubide Juridikoaren 11. artikulua xedatutakoaren arabera, administrazio-organismoen edo zuzenbide publikoko entitateen eskumenerako jardura materialak edo teknikoak administrazio bereko edo beste bateko beste organo edo zuzenbide publikoko entitateen gomendio utz daitezke, jardura horiek haien eskumenen barruan badaude, efikaziari begira komeni bada, edo jardura horiek gauzatzeko baliabide tekniko egokirik ez badago.

Udalbatzak, aho batez, zera erabakitzen du:

Lehen. Barrundiako Udalak Lautadako Kuadrillari agintzen dio Berdintasunerako eskola-patioen diseinua izeneko proiektuko lanen kudeaketa tekniko eta materiala bere gain hartzeko. 1. fasea: sentsibilizazioa, analisia eta proposamenak.

Bigarrena. Barrundiako Udalak Lautadako Kuadrillari transferituko dizkio Genero indarkeriaren aurkako Estatu Itunetik jasotako funtsak (850,64 euro), agindutako kudeaketa materialak eragindako gastuei aurre egiteko.

Hirugarrena. Agindu honen iraupena 2020ko ekainaren 30ean agortzen da, programa egiteari dagokionez (konprometitutako gerakinak).

Ozaetan, 2020ko otsailaren 26an

Alkatea
IGOR MEDINA ISASA